



BERMEOKO URIGINTZA-BARRIZTATZE ALKARTEA

I. KAPITULUA

SOZIEDADEAREN IZENA, IRAUPENA, HELBURUA ETA EGOITZA.

1. Artikulua.-

“BERMEOKO URIGINTZA-BARRIZTATZE ALKARTEA” (Beruala) izenagaz eratzen da Merkataritzarako Soziedade Anonimo bat. Soziedade hau arautuko da: Estatutu honeekaz, Soziedade Anonimoen Legearen Testu Bateratua onartzen dauan abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzazko Errege Dekretuagaz, 1976ko apirilaren 9ko Lurzoru Legearen Testu Bateratuagaz, 1978ko abuztuaren 25eko Urigintzazko Kudeaketarako Araudiagaz, Eusko Jaurlaritzako abenduaren 5eko 278/1983 Dekretuagaz eta Urigintzazko Soziedadeei buruzko maiatzaren 2ko 1169/1978 Errege Dekretuagaz, eta, aplikagarriak liratekeen beste lege guztiakaz.

2. Artikulua.-

1. Soziedatea sasoi muga bako baterako eratzen da, eta, eratzen dan egun berean hasiko da bere jarduna.

2. Bere eremua, Bermeoko udalerrinari egongo da mugatuta.

3. Artikulua.-

1. Soziedadearen xedea hau izango da:

a) Eusko Jaurlaritzako abenduaren 5eko 278/1983 Dekretuan edo beste edozein legetan azaltzen dan urigintza arloko birgaitze jarduna burutzea.

b) Plangintza orokorra kudeatu eta burutzea, indarreko legediak, eta, batez be, 1169/78 Errege Dekretuak esandakoa kontuan hartuta.

2. Funtsean, jardute honeek izango dauz soziedadeak:

- a) Birgaitze plan bereziak egitea.
- b) Urigintzako Planak eta Proiektuak egitea, birgaitzekoak be bai.
- c) Eraikite moeta guztietako birgaitze proiektuak egitea.
- d) Birgaitze jarduteak diran obrak burutzea eta plan bereziak egitea suposatzen dauan beste edozein lan burutzea.
- e) Azterlan sozio-urigintzazkoak burutzea eta euren jarraipena egitea.
- f) Lurzoruaren programazinoa sustatzea eta antolatzea, Planeamenduak agindutakoa beteteko.
- g) Desjabetze espedienteak egitean eta kudeatzean laguntza emotea.
- h) Soziedadeak behar dauan beste edozein agiri tekniko-juridiko egitea.
- i) 278/83 Dekretuan zein beste edozein xedapenetan ezarritako beste edozein jardun, orokorrean administrazino-kontzesinorik emotea beharrezkoa ez danean, baita, udalerraren planeamendu nagusi barrukoak eta bereziki eraikuntzearen sustapenekoak.

4. Artikulua.-

1. Bere helburuak beteteko, soziedadeak honako hau egin ahal izango dau:

- a) Erkidegoaren lehen mailako ekipamendua hobetu eta gehitzeko inbertsinorako plan bereziak egitea eta urigintzako esku-hartzeak burutzea. Estatuko zein Autonomia Erkidegoko gobernuakaz hitzarmenak egitea, edo Bizkaiko Foru Aldundiagaz zein estatuko edo autonomia erkidegoko administrazinoen erakunde publikoakaz.
- b) Erakunde Publikoen baliabideak eta esku-hartzeak koordinatu eta bideratzea.
- c) Gaitasun ekonomiko urridun etxebizitzetako erabiltzaileakaz egindako hitzarmenetan parte hartzea, etxebizitza horreek birgaitzeko obrak egiteko ahalmena emonaz Soziedadeari.

d) Autonomia Erkidegoaren eta Euskal Herriko Finantzatze Erakundearen artean sortu leikezan hitzarmenetan parte hartzea, edo Autonomia Erkidegoaren Legezko beste edozein Xedapenean, 278/1983 Dekretuaren 4. zenbakiaren 35. artikulua ezarritakoaren arabera.

e) Ekimen pribatuari laguntzeko planak egitea.

f) Birgaitzeko laguntza eskariak hartu eta egiaztatzea, gero Erakunde eskudunari bialtzeko.

g) Ekintza pribatu guztiak kontrolatzea, azaltzea, kudeatzea, aholkua emotea, informatzea eta koordinatzea.

h) Birgaitze obrak burutzeko zein aurri egoera kasuetan eraispenak egin behar direnean, behin behineko ostatuak lortzea.

i) Zuzenbide bateratuak onartzen dauan ondasun edo higiezinak erostea, jabez aldatzea, eraikitea, aldatzea edo euren eskubideak iraungitea, jardute area horretan urbanizazioak, eraikuntzak eta aprobetxamenduak hobeto lortzeko.

j) Lurraldea antolatzearen ondorioz sortutako lursailak edo orubeak besterentzea, ezarritako epeen barruan eraikiko dala bermatzeko.

2.- Lan edo eginkizun honeek beteteen, izakera pribatuko erakunde modura jardungo da.

5. Artikulua.-

Eragin guztietarako, Bermeoko Intxausti kalea, 2 eraikina ezarten da soziedadearen egoitza modura.

II. KAPITULUA

SOZIEDADEAREN KAPITALA

6. Artikulua.-

1. Soziedadearen kapitala HAMAR MILIOI (10.000.000) PEZETATAN ezarten da. Mila pezeta nominaleko HAMAR MILA (10.000) AKZINO nominatiboz ordeztuta, akzino honek zenbakia eukiko dabe bakoitxak, 1etik 10.000ra, eta Administrazio Batzordeak izendatutako titulu edo dokumentuetan mamituko dira. Taloi-liburuetan ezarriko dira. Taloi-liburuetan ezarrita egongo dira akzinoak. Kapital guztia ordainduta egon beharko da Soziedatea eratzen danean.

2.- Bermeoko Udala da kapital guztiaren jabe bakarra, akzino horreen bidez, eta ezin izango dauz transferitu ez beste ezertarako erabili.

III. KAPITULUA

SOZIEDADEAREN ADMINISTRAZINO ERREGIMENA

7. Artikulua.-

Soziedadearen Zuzendaritza eta Administrazioa organo honeen eskuetan egongo da:

- a) Batzar nagusia, Udalbatzak osotua.
- b) Administrazio Kontseilua.
- c) Zuzendari gerentea.

BATZAR NAGUSIA

8. Artikulua.-

Udalbatza osoko bilkuran, Soziedadearen Batzar Nagusi legez eratuta, jardunbide arloan xedapen legalak ezarritakora egokituko da erabagiak hartzeko.

9. Artikulua.-

1. Moeta bikoak izango dira Batzar Nagusiak: ohikoak eta ohiz kanpokoak.

2. Ohiko Batzar Nagusia, ekitaldi bakotzeko lehen sei hilabeteen barruan batuko da, soziedadearen kudeaketa aztertzeko, aurreko urteko Kontuak eta Balantzeak onartzeko, holan bajagoko, eta emoitzaaren aplikazioa erabagiteko.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusten ez danik eta egiten dan beste edozein Batzar Nagusik, Ohiz kanpoko Batzar Nagusitzat hartuko da.

4. Ohiz kanpoko batzarra, honeitariko edozein kasutan batuko da:

- a) Administrazio Kontseiluak proposatuta.
- b) Presidenteak bere kitean deia egiten dauanean.
- c) Batzar Nagusia legalki osotzen daben kideen laurenak horrela eskatuta.

5. Lau hilabetero egingo da Batzar Nagusia, gitxienez.

6. Kontseilariak Batzar Nagusietara joan beharko dira.

Zuzendariak, gerenteak, teknikariak eta soziedadearen gaiak ondo joateko interesen bat daukien ganerako pertsona guztiak parte hartzea onartu edo agindu leike.

Aldi berean, presidentek egoki ikusten dauan edozein pertsonak hartu leike parte batzarretan. Batzarrak, halanda guzti be, itzi leike baimen hori indar barik.

Erregistro lanak burutzeko edo aztertutakoa grabetako eta abar, Batzar Nagusiko buruak beste pertsona batzuren lankidetzan onartu leike, eta batzararetoan egotea, Batzar Nagusian dagozan bitartean.

10. Artikulua.-

Udalbatzak, Batzar Nagusi modura, ahalmen honeek izango dauz:

- a) Administrazio Kontseilua izendatzea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Kapitala gehitu eta gitxitzea.
- d) Obligazioak ateratea.
- e) Inbetarioa eta urteko Balantzea onartzea eta onurak zelan banandu erabagitea.
- f) Batzar Nagusiak urtero finkatzen dauan diru-kopurutik gorako balorazioa dauan Enpresaren ondasunak zamatzea, besterentzea, lagatea edo hipotekatzea.
- g) Urtebetetik gorako amortizazio eperik hitzartuko balitz edo urtero Batzar Nagusiak finkatutako kopurutik gorako kasuetan baimenduko dira mailegu-eragiketak.
- h) Administrazio Kontseiluak egindako Araudia onartzea, edozein moetatuko hartu-emonak arautzeko Soziedadearen eta birgaitzeek, edo soziedadearen beraren beste ekintza batek zein auzokoen ordezkariak egindako kontsultakaz afektatutakoen ordezkarien artean.
- i) Soziedade Anonimoen Legeak, Legedi Osagarriak eta Estatutu Sozialetatik eratorrita Batzar Nagusiari emoten deusiezan eginkizun guztiak.

ADMINISTRAZINO KONTSEILUA

11. Artikulua.-

1. Bost kontseilarik osotuta egongo da Administrazio Kontseilua, bere burua, alkate-udalburua, kontau barik. Udaleko talde politiko bakotzak bere ordezkaria izango dau Batzordean.

2. Alderdietako ordezkari banagaz bost kontseilariren kopurua bete ezean, ganerako karguak, udalbatza barruan dagozan talde politikoen artean beteko dira, zinegotzi kopururik gehien daukan taldetik hasita, beherantz. Zinegotzi kopuru bera daukien taldeen artean, jagokozan udal hauteskundeetan botorik gehien lortu dauzan taldeak izango dau ordezkaria. Era berean, Kontseilarentzat jarritako kopurua baino talde gehiago egon ezkerre udalean, udal hauteskunde horreetan botorik gehien lortu dabezan bost taldeek izango leukie ordezkaria.

3. Batzar Nagusiak izendatuko dauz ordezkariak, lau urtetik gorakoa ez dan aldirako, edo, behintzat, izendapena eragin dauan udal agintaldi politikorako.

4. Batzordeko kideei ordaintzekoa, ekitaldi bakotxerako finkatuko dau, bere kasuan, Batzar Nagusiak.

12. Artikulua.

Udal Legedian, Soziedade Anonimoen eta izakera orokorreko beste legeek ezarritako ezgaitasunakaz eta bateraezintasunakaz afektatuta egongo dira kontseilariak. Egoera horreetan egon ezkerre, kontseilariak ezin izango dabe ezelako kargurik euki ez Soziedadearen administrazioan, ez aholkularitzan ezta zuzendaritzan be.

13. Artikulua.

1. Presidente eragilea eta kontseiluburuorde karguak egongo dira, eta Presidenteak berak izendatuta egongo dira kontseiluko zinegotzi kideen artean.

2. Presidenteak egoki ikusten badau, bere eskumen guztiak edo zati bat delegatu leike presidente eragilearengan, baina, kanpoan dagoalako, edo gaixorik edo beste horrelakoetan haren ordezkari jardutearen kalte barik.

3. Presidenteordeak presidente eragilearen ordezkari jardungo dau, hau kanpoan egon ezkerre, edo gaixorik, edo bere jarduna bete ezinean egon ezkerre. Kasu honeetan, eta egoerak irauten dauan arte, Presidentearen eskumen guztiak izango dauz, delegazioz honek hartu dauzanak izan ezik.

4. Goian aitaturako karguek, izakera iraunkorrean burutuko dabez Administrazio Kontseiluak delegaturako eskumenak.

5. Kontseiluko idazkaria Bermeoko udalekoa izango da edo legalki bere ordezkari arituko dana.

14. Artikulua.-

1.- Soziedadearen zuzendaritzaz, kudeaketaz eta betearazpenaz arduratzeko eskumen osoa izango dau Administrazino Kontseiluak, Estatutu-Arau honeen eta merkataritza-legediaren legeen barruan eta Batzar Nagusiari eta zuzendari gerenteari atxikitakoen kalte barik.

2. Kontseiluaren gestino-epe barruan hutsunerik gertatuko balitz, Batzar Nagusiak ordezkoa izendatuko leuke, baldintza bereetan.. Horrela izendatutako administratzaileen agintaldia, ordeztu dauan pertsonak Administrazino Kontseiluak egin behar eban denborarako izango izango da, gero barriro aukeratua izango bada be.

Administrazino Kontseiluko kideen kopurua gitxitzea, Batzar Nagusiak bakarrik erabagi leike; hutsik geratzen bada edo Kontseilaria izendatu zan epea igaro ezkeru, orduan amortizatu egingo da.

3. Batzordearen batzarretan egon leikez ahotsez eta botoz, une horretan Kontseilari diran guztiak.

15. Artikulua.

Administrazino Kontseiluari jagoko, modu berezian, eta, aurreko artikuluan ezarritakoa mugatu barik:

a) Batzar erregimena ezartea, Administrazino Kontseiluaren bai ohiko zein ohiz kanpoko batzarrena.

b) Eztabaidatzea eta soziedadearen izenean erabagiak hartzea, zuzenean edo ez zuzenean soziedadearen helburuagaz zerikusia daben negozio eta gai guztietan, eta, eskumena Batzar Nagusiarena bereziki ez danean, aurreko artikuluetan ezarritako muga kalte barik.

c) Soziedadearen eta bere zerbitzu guztien jarduna antolatu eta ikuskatzea.

d) Kontratu, hitzarmen edo negoziiazino moeta guztiak egitea, Batzar Nagusiaren eskumenekoak ez diranean.

e) Soziedadea ordezkatzea auzietan eta auzietatik kanpo, edozein instantzian behar lirakeen ekintzak buruturik edo ezer egitea alde batera itziz.

f) Langileen plantilea eta euri egin beharreko ordainketak urtero onartzea eta soziedadeko langileak izendatu honeetariko karguetariko baterako edo kargu horreetatik kanporatzea be bai: agintea, burutzea edo erantzukizun berezia daukienak eta zuzendari gerentea be bai, guztia Batzar Nagusiak baieztearen menpe.

g) Urtero finkatzea Administrazio Kontseiluko batzarretara joateari eta Bermeotik kanpora egiten diran joan-etorrien gastuei jagokezan dietak, organo horretako kideentzat eta zuzendari gerentearentzat.

h) Soziedadeak behar dauzan kreditu eragiketak eta gainerakoak erabagitea, Batzar Nagusiaren eskumenekoak ez diranean.

i) Batzar Nagusiak agintzen dauanaren arabera, beharrezkoa dan guztia prestatzea obligazioak aterateko.

j) Ohiko Batzarrari urtero aurkeztea: Balantzea, Galtzeen eta Irabazien Kontua, onurak banatzeko proposamena eta Soziedadearen egoerari jagokon txostena.

k) Batzar Nagusirako deia egin daiala proposatzea Administrazio Kontseiluari eta bere erabagiak betetea.

l) Epaitegietara eroan beharreko gaiak erabagitea eta zeintzuk eroan behar diran adiskidetasunez konpontzeko auzietara.

m) Estatutuak irakurteko orduan sortu leikezan zalantzak erabagitea eta eurotan agertzen ez dana betetea, horren barri Batzar Nagusiari emonaz, egokia litzatekeen erabagia hartu daian.

n) Osotasunean edo zati batean bere ahalmenak eta eskumenak presidentearengan delegatzea, edo Administrazio Kontseiluko kideren batengan edota zuzendari gerentearengan.

o) Zerbitzua emoteko Araudia onartzea eta aldatzea.

16. Artikulua.

1. Administrazio Batzordea geratuko da baliotasun osoz eratuta: lehenengo deialdian, batzartzen diranean, bertaraturik edo ordezkaturik, kideen erdia eta bat gehiago.

2. Kontseilari kopuru nahikorik batzartuko ez balitz lehen deialdian, bigarren deialdi bat egingo litzateke lehenengorako jarritako ordutik ordu erdira, eta dana dala batzartutakoen kopurua (hirutik beherakoa izan ezik), hasieraa emongo jako batzarrari.

17. Artikulua.-

1. Administrazio Kontseilua ohiko batzarrean batuko da hiru hilabetetik behin, aztertzeorik ezer egon ezker.

2. Aztertzeko ezer ez balego, presidenteak kontseilariei jakinarazoko deuse ez dala egongo ohiko batzarrik.

3. Presidenteak edo hiru kontseilarik eskatu ezker, egingo da ohiz kanpoko batzarra.

4. Soziedadearen egoitzan edo presidenteak esaten dauan lekuan egingo dira batzarrak.

18. Artikulua.

1. Administrazio Kontseiluaren batzarretarako deialdiak, idazkariak bialduko dauz, batzarra baino egun bi lehenago, eta eguna, ordua eta egiteko lekua azaltzeaz gain, zer aztertuko dan be agertuko da. Horretarako, idazkariak aurretiaz prestatuko dauz azertu beharreko gaiak presidenteak eguneko gai zerrendea finkatu daian.

2. Presidentearen eritxiz, premiatasunez ohiz kanpoko batzarrerako deialdia egin behar danean, ohikoetarako emondako epeak txikituz egin leike, baina deialdi horretan, ze gaik edo zeintzuk gaiek eragin dauan edo daben batzarra azaldu beharko da, laburtuta baino ez bada.

3. Aurretiaz deialdia egin behar barik batzartu leike batzordea, bere kide guztiak batuta.

19. Artikulua.

Administrazio Kontseiluaren erabagiak, batzartutakoen botoen gehiengo osoaz hartuko dira.

20. Artikulua.

1. Bere helburuak beteteko, egoki ikusten dauzan beste batzorde sortu leikez bere barruan Administrazio Kontseiluak. Halanda guzti be, batzorde honeek aholkulariak baino ez dira izango eta ez dabe eukiko erabagirik hartzeko eskumenik.

2. Edozein eskumen delegatu leike Kontseiluak, baina, delegazioak beti behar izango dau baliokoa izateko, kideen hiru lauren biren baiezko botoa eta Batzar Nagusiaren baietza, eta, ganera, Merkataritza Erregistroan inskribatu arte ez dau eukiko ezelako eraginik.

21. Artikulua.

1. Kontseiluaren eztabaidak eta erabagiak Akta Liburu baten jasoko dira. Akta liburu hori zigitatuta egongo da eta orri guztiak zenbakiagaz. Liburu horretan

idatziko da batzar bakotxaren aktea eta hurrengo batzarra hasten danean irakurriko da eta batzartutakoek izenpetuko dabe.

2. Akta Liburuei buruzko ziurtagiririk emon behar danean, Kontseiluko idazkariak baimenduko dauz eta presidentearen edo haren ordezkoren onetsia be eroango dabe.

22. Artikulua.

Administrazio Kontseiluaren presidentearen eskumena izango da:

- a) Soziedadearen Estatutuak betearazotea.
- b) Eztabaidatu behar dirala uste dauzan gai guztiak Kontseilura eroatea.
- c) Kontseilua batzeko deialdia egitea, batzarreko buru izatea eta eztabaidak zuzentzea.
- d) Batzar Nagusiaren eta Administrazio Kontseiluaren erabagiak betetea.

ZUZENDARI GERENTEA

23. Artikulua.

1. Adminitrazino Kontseiluak izendatuko dau zuzendari gerentea eta Batzar Nagusiak baieztatuko dau izendapena.

2. Kargua, jarduera bakarrekoa izango da, iraunkorra eta Bizkaiko Lurralde Historiko barruan zein kanpoan beteten edozein lanbide, karrera, industria edo merkataritzagaz bateraezina.

3. Administrazio Kontseiluak finkatuko dauz kargua beteteko baldintzak eta lansaria.

24. Artikulua.

Administrazio Kontseiluak beregan delegatzen dauzan eskumenetatik kanpo, zuzendari gerentearen eskumenak dira honakoak, Administrazio Kontseiluak eskumenetariko edozein beregan hartzearen kalte barik, horretarako zehazki hartutako erabagian.

- a) Pertsonal guztiaren eta zerbitzuen burutza gorena eta zuzena.

b) Zerbitzu orokor eta berezien araudia prestatu eta proposatzea, onartutakoa eta izakera orokorreko zein udaleko indarrean dagozan xedapenak bete eta betearaztea, soziedadeari buruzkoak diranean.

c) Egokiak eta beharrezkoak ikusten dauzan barrikuntzak, barriztatzeak eta zabaltzeak aztertu eta proposatu leikez, baita kontsebazino obrak, moeta guztietako tresnak eta materialak erostea, mantentzea edo barriak ipintea, hau da, funtzionatzeko beharrezkoa dan guztia.

d) Dokumentazioa emotea eta egindako zerbitzuen eta eragiketen erregistroak eta estadistikak egiten dirala zaintzea, eta, enpreseari agindutako zerbitzu guztiei buruzko ziurtagiriak egitea.

e) Bere alderdi guztietan, soziedadearen (batez be, urigintza eta ekonomia arloetan), garapen normala lortzeko bideratuta dagozan proposamenak kudeatzea, aztertzea eta sustatzea eta jarduera guztiak burutzea.

f) Kontseiluak edo bere presidenteak aztertu, jakin, tramitatu edo onartu behar dabezan gaiak eta agiriak prestatu, batu eta ordenatu behar dauz.

g) Ahotsagaz baina boto barik egotea Kontseiluaren eta Aholkularitza batzordeen batzarretan.

h) Kontseiluak hartutako erabakiak prestatu, tramitatu eta betearazotea.

i) Urte bakotzeko ekitaldia amaitzen danean, bere gestinoaren txostena emotea Kontseiluari eta Kontseiluak Batzar Nagusiari emon beharrekoa idaztea.

j) Agintea, burutzea edo erantzukizun berezirik ez daukien karguetarako soziedadearen langileak izendatzea edo kargu horreetatik kentzea.

k) Ordainketa-aginduak emotea, kobrantzak egitea edo kontratuak onartzea.

l) Administrazio Kontseiluaren delegazinoz soziedadea ordezkatzeko kontratuak egikeran edo berari jagokozan ekintzak burutzean, bai auzietan eta bai auzietatik kanpo.

IV. KAPITULUA

SOZIEDADEAREN ONDAREA ETA OGASUNA

25. Artikulua.

Bere helburuak beteteko soziedadeak erosten edo eraikiten dauzan eraikinak, lurrak, instalazioak, makineria, tresneria, ibilgailuak, altzariak eta

ganerako ondasun eta eskubideak, zerbitzuaren beraren helburuak beteteko atxikita egongo dira era iraunkorrean. Ondasun honeekaz erantzungo da lehenengoz hirugarrenen aurrean hitzartutako betebeharretan.

Bermeoko Udalak Soziedadeari izten deitsozan ondasunak kanpoan geratzen dira, erabilteko bakarrik izten deitsozalako, jabetzak, ordea, udalarena izaten jarraituko dau.

V. KAPITULUA.

EKONOMIA KUDEAKETA

26. Artikulua.

Soziedadearen kontabilidatea partida bikotxaren sistemaz egingo da, Merkataritza Kodearen eta izakera pribatuko Udal Soziedadeentzako beste xedapen bereziek agindutakoa betez.

2. Soziedadearen ekitaldia, urte bakotxeko urtarrilaren 1ean hasten da eta abenduaren 31n amaitzen da. Salbuespen modura, lehenengo ekitaldia, Soziedatea eratzen dan egun berean hasiko da.

27. Artikulua.

Soziedadearen Administrazio Kontseiluak, ekitaldia amaitu eta hiru hilabeteren barruan emon beharko dauz urteko kontuak, gestinoaren txostena eta emoten dauanaren aplikazio proposamena, eta, bere kasuan, kontu bateratuak eta kudeaketaren informazioa.

Agiri honeei buruzko txostena emon beharko dau udal kontuhartzaileak.

28. Artikulua.-

Kontzeptu guztietan lortutako diru-sarreretatik, egon diran gastuak kenduko dira, eta, geratzen dana, hori izango da mozkin garbia, Batzar Nagusiak erabagiten dauan erara bananduko dana.

2. Egoki ikusten dauan dirukopurua erreserba-fondorako gordeteko eskumena izango dau Batzar Nagusiak.

29. Artikulua.

Bermeoko Udaleko kontu-hartzaileak beteko dauz, ekonomia arloan, indarreko legediak agintzen dauzan funtzinoak.

VI. KAPITULUA

SOZIEDADEA DESEGITEA

30. Artikulua.

1. Honako arrazoien bategaitik desegingo da soziedadea:

- a) Estatutuek finkatu daben denborea igaro dalako.
- b) Bere xede soziala dan enpresea desegin dalako edota ezinezkoa dalako soziedadea garatzea edota bere organoak gelditu egin diralako eta ezinezkoa dalako bere funtzionamendua.
- c) Soziedadea fusionatu edota banandu egin dalako.
- d) Kapital soziala erdira edo handik beherako ondarrera ekarri daben galtzeak egon diralako, neurri egokian handitu edo txikitu ez bada.
- e) Legezko gitxienetik behera gitxitu dalako kapital soziala.
- f) Soziedade Anonimoen Legearen testu bateratua onartzen dauan, abenduaren 22ko 1549/89 Legegintzako Errege Dekretuaren 103. artikulua ezarritakoaren arabera hartu daualako erabagia Batzar Nagusiak.
- g) Estatutuetan ezarritako beste edozein arrazoigaitik.

2. Kitatzaileak izendatu beharra balego, funtzino hori hartuko leuiek Administrazio Kontseiluko kideek, Batzar Nagusiak besterik esaten ez badau. Kontseiluko kideen kopurua bikoitia balitz, adinez gazteena dan kontseilariak ez leuke hartuko kitatzaile funtzinorik.

31. Artikulua.

Soziedadea deseginda, Bermeoko Udala, aktiboaren kargu egingo da, aktiborik balego, eragiketa kitatzaileak burutu eta gero, eta, haren ordezkoa izango da, eragin honeetarako bakarrik, eta, haren kargu eginez, erregistro-izendapenak ezeztatzen ez badira be.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Estatutu honeetan zehazki esaten ez dan guztirako, Toki Erregimena arautzen daben Xedapenek agindutakora egongo gara lehenengoz, Soziedade Anonimoen Araubide Juridikoaren Legeak eta bertatik eratorritako xedapenek agindutakora, baita, euren xedapen osagarriei buruzkoak, eta urigintza legediaren agindu partikularrek esandakora.

BIGARRENA.- 1. Soziedadearen langileria, lan erregimenari zuzenean lotuta egongo da, Estatutu honeetan zehazki aurreikusten diran kasuetan izan ezik (idazkari nagusia, kontu-hartzailea eta Bermeoko Udaletik aldi baterako atxikitako funtzionarioak).

2. Soziedade Anonimoari pertsona bat atxikita egote hutsak, ez deustso emoten Bermeoko Udaleko funtzionario izakerarik.

Bermeon, 1990eko maiatzaren 14an

DILIGENTZIA.- Agertarazoteko: Estatutu honeek Udaleko osoko bilkureak onartu dauzala, 1990eko maiatzaren 31n.

1990ko irailaren 13an
UDALEKO IDAZKARIA